



STRINGER | AFP

IKUSMIRA

EHUN OSPITALE BONBARDATU OSTEAN, IKERKETA

Dentistaren kontsulta ematen du, edo ematen zuen Saudi Arabiak gidatzen duen koalizioako hegazkinak bonbardatu baino lehen. Bada, ez, ospitalea zen. Eta bonbardaketaren egunean zazpi hildakoren berri eman bazuten ere, biharamunerako hamalau ziren jada. Hori bai, MSF Mugarik Gabeko Medikuen argazkiko ospita-

lea ez da Yemenen bonbardatutako lehena, hamasei hilabetea, gerra hasi zenetik, ehunetik go-
ra suntsitu dituzte-eta. Gehienak, Saudi Arabiaren koalizioak. Ezin esan, baina, koalizio horrek
ospitaleak soilik bonbardatzen dituenik, aurreko astean eskola bat bonbardatu eta gutxienez ha-
mar haur hil baitzituen. Edonola ere, Saudi Arabiak MSFren ospitaleari buruzko ikerketa abiatze-
ko konpromisoa iragarri du. Ez dirudi urrunera iritsiko denik "ikerketa", baina Saudi Arabiak (edo
txandako herri bonbardatzaileak) barkamena eskatu beharko balu, hala egingo luke, bere hegaz-
kinak beste ospitale bat, edo eskola bat, bonbardatzen duten bitartean...

Xabier Izaga Gonzalez